



Duela bi aste lan-istripu larria gertatu zen Sestaon eta gertakari honen ondorioz langile bat hil da

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 31/05/2024

Aurten, gutxienez, 27 langile hil dira Euskal Herrian.

Maiatzaren 16an oso lan-istripu larria gertatu zen Sestaon eta, ondorioz, 29 urteko langile bat hil da. Langilea berogailu bat instalatzen ari zen etxe partikular batean, ezagunak ez diren arrazoiengatik leiho batetik barruko patio batera erori zenean. Istripua gertatu zenean, arrebarekin lanean ari zen. Horrek eragindako zauri larrien ondorioz maiatzaren 27an hil zen langilea, sindikatuek jakinarazi duetez. Langileak Sirkus, Sistema de Tiendas S.L. enpresarentzat egiten zuen lan, eta enpresa hori Leroy Merlinek azpikontratatu zuen.

<https://eh.lahaine.org/duela-bi-aste-lan-istripu>